



## **FUNTSEZKO BALIABIDEAK**

Jarraian aipatuko ditugun ezaugarriek gure enpresak aurrera egitea eta diru-sarrerak lortzea ahalbidetuko digute. Baliabide motaren arabera, lau azpigaietan banatu ditugu: baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza baliabideak, finantza-baliabideak.

Baliabide fisikoei dagokienez, gure enpresa aurrera eramateko eremu fisiko bat beharko dugu, hasiera batean, gure etekinak maximizatzeko, gastuak murriztuz, eremu publikoak erabiliko ditugu; oreretako gaztetxea edo gure herriko *lekuona* bilgunea. Bestalde, almazen bat erostea pentsatu dugu, edozer gauza dela eta, gauzak gordetzeko leku bat edukitzeko asmoarekin. Almazen hau Errenteriako Iztieta auzoko Oartzun kalean kokatuta dago. Hau da, gure hotelen gertu. Gertutasuna ezinbesteko balioa izango da gure kostuak murriztu ahal izateko. Bestalde, garraiobideak ere erabiliko ditugu, kamioiak nagusiki, izan ere, gure hotelak eraikitzeke altzairuak garraiatu beharko ditugu eta horiek garraiatzeko modurik egoki eta errazena kamioia da. Horrez gain, teknologia ekipo bat erosi beharko dugu, gure erreserbak, gastuak, etab. kudeatu ahal izateko. Horretarako, teknologian gu oso abilak ez garenez, informatiko bat kontratatuko dugu.


Baliabide intelektualari erreferentzia egiten badiogu, ezagutza eta ideia desberdinei egiten diogu erreferentzia, horregatik, gu geu izango gara. Enpresaren sortzaileak izango gara, izan ere, arazo bat edukiz gero, guk konponduko dugu gure ezagutzetan oinarrituz. Gure ideiak dira gure hotela definitzen dutenak, beraz gu izango gara baliabide intelektualak. Gure taldea orokorrean, hainbat gauzetan da ona baina badaude nabarmendu ditzazkegun hainbat ezaugarri. Batetik, liderazgoan oso onak gara, gure taldekideei motibatzean batez ere, eta talde bat eramateko garaian ez dugu arazorik. Bestetik, oso pertsona planifikatuak eta arduratsuak gara, lan bat egiterako garaian ez dugu arazorik izaten, oso ongi antolatzen baitugu gure denbora. Guretzat



ostiko bidaiari

ezinbestekoa da lan garrantzitsuak fundamentuz egitea, horregatik gizar-tean ekarpen handia egin dezakegula eta arazo-en aurrean ondo moldatu gaitezkeela uste dugu.

Hurrengo ezaugarri-taldeari dagokionez, ezinbestekoa da giza baliabideak garrantzitsuenak direla azpimarratzea, pertsonen eraman-gu dugulako lana aurrera. Hau azaltzeko, organigrama bat osatu dugu, faktore eta lan guztiak biltzen dituen:



Nabarmena da langile ugari beharko ditugula azpimarratzea, baina lana oso pisutsua ez izateko, taldeko kide bakoitzak lan zehatzak edukiko ditu, eta hauek gauzatuko dituzten langileak kontratatu beharko dituzte ere. Taldeko kidea bakoitza aspektu zehatz batzuen zuzendariak izango dira, adibidez, marketing zuzendariak marketingarekin eta publizitatearekin zerikusia duen guztia kontrolatu eta zuzenduko du, beti ere beste langile espezializatuen laguntza edukita. Horrez gain, zuzendariak dena kontrolatu eta errepasatuko du, eta norbaitek laguntza beharrez gero, hark lagunduko die. Gainera, ekintza berezien antolatzaileak ekimen bereziak antolatzeaz eta horien aurrera eramateaz arduratuko da. Hornitzaileekin kontaktatuko duen kideak, berriz, beste enpresa eta pertsonekin harremanak egingo ditu gure behar guztiak aurrera eramanez.

Finantza-baliabideei dagokionez, bankuari mailegu bat eskatuko diogu gure proiektua hasteko, Mailegu hori hasiera batean diru sarrera bat izango da, gure enpresak aurrera egiteko oso lagungarria den irabazi iturri bat izango dela argi dago. Baina, etorkizunea begira, mailegu hori kostu bat izango da guretzat, izan ere,



ostiko bidaiari

etorkizunean, mailegu hori bankuari bueltatu beharko diogu. Honetaz eta diruarekin zerikusia duen guztiaz Alaia Aizkorreta, finantza zuzendaria, eta haren laguntzaileak (kontableak) arduratuko dira. Maileguaren kopurua ez da oso altua izango, baina ezta oso baxua ere, hotel bat eraikitzekeo baliabideak lortzeko nahikoa. Hau guztia kontuan harturik, 200.000€ eskatzea erabaki dugu, beti ere diruaren oso kontrol eguneratua eta zehatza mantenduz, soilik beharrezkoa dena eskuratzeko.

Aurreko guztia kontuan hartuta, argi dago gure proiektua aurrera eramateko behar ditugun baliabideak funtsezkoak izango direla. Hauek ondo aprobetxatzeko eta zerbitzu onena eskaintzeko dena taldeko kideek zuzendu eta kontrolatuko dugu, beti ere guretzat hain garrantzitsua den gertutasuna adieraziz eta gure helburu eta ideiak mantenduz.